



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2023/11/20



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRAYOZ ARIZTEGUI
2023/11/20



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31730 Lesaka (Nafarroa)
NIF P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

NIF: P3115200B

SECRETARIA GENERAL

ALKATEAREN EBAZPENEA, OILARTEGI SLU ENPRESAREN LANPOSTUAK MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO EPAIMAHAIA IZENDATZEN DUENA.18370P ESPEDIENTEA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluari jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako alkatearen abenduaren 14ko 579/2022 Ebazpenaren bidez onesten da Oilartegi SLU enpresaren lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

5.1. puntuaren arabera, kalifikazio epaimahaia deialdi onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da. Kide-kopurua bakoitza izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoren kopuru bera izendatu beharko da. Izendapen hori argitaratuko da deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.) Oilartegi S.L.U. enpresa publikoaren lanpostuak egonkortzeko eta finkatzeko postuetarako epaimahaiko kide honako hauek izendatzea:

-Lehendakaria: Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.
Ordezkoa: Izaskun Rodriguez Marichalar, Lesakako Udaleko zinegotzia.

-Bokala: Jose Viela Urtasun, Oilartegi S.L.U. enpresaren kudeatzailea.
Ordezkoa: Eneko Fernandez Maritzalar, Lesakako Udaleko zinegotzia.

-Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.
Ordezkoa: Miguel Jose Belarra Tellechea, Berako Udaleko Idazkaria.

2.) Oinarrien arabera, epamahiak aholkulari espezialistei izendatzeko aukera ematea.
3.) Ebazpen hau epamahiakideei jakinaraztea eta Udaleko web orrian argitaratzea.



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AV2Q H9P3 UV7V NUY3

Resolución Nº 515 de 20/11/2023 "Oilartegi SLU enpresaren lanpostuen estabilizaziu-epamahiaren izendapena" - SEGRA 11679

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 1tik 1 orrialdea